

**2014.07.14**  
**LURRALDE ANTOLAMENDUKO 12. bilerako AKTA**

A.G., A.R., X.I., K.F.

Gai ordena:

- Bileren ordutegia/egutegia
- Kaleko langilea: oporrak eta urte bukaera
- Beko Kaleko proiektua
- Bidegorriaren obra: egoera
- Kurtso bukaerako errepassoa
- Balorazioa
- Pellet erosketa
  
- **Bileren ordutegia/egutegia**

Oihane teknikariari ez zazio bileren ordutegia ondo etortzen (19:00etan) umea izan dunetik. Bestalde lantaldeko kide garrantzitsua den D.E. atsaldez dago lanean bi astez behin. Etorri garenon artean proposatu da bilerak ordubete lehenago egitea eta D.E. atsaldea libre daukan egunetan ahal bada.

- **Kaleko langilea: oporrak eta urte bukaera**

JM udal langilea Itsasondoko jaietan egotea garrantzitsua dela ikusten da. Berarekin hitz egingo da. Bestalde urte bukaera arte beste langile bat hartzea proposatzen da ere bai. Aurrekontuetan aurreikusita dago eta Idazkariarekin hitz egingo da, langabezian dagoen pertsona eraginkor bat hartu ahal izateko prozedura zehazteko.

Bestalde kaleko langileen lana optimizatzeko hainbat proposamen eztabaidatu dira. Proposamen hau egin da: herriko probeedoreei produktuak zuzenean herrira ekartzeko eskatuko zaiela, hainbat bidai aurreztu ahal izateko.

- **Beko Kaleko proiektua**

Alkateak Itten-ekin martxan daukagun egitasmoaren egoera zein den azaldu digu (BekoKaleko urbanizazioaren proiektua garatzearena): Irailak 3 bilera egingo da Itten-eko arduradunekin plana prestatzeko. Helburua izango litzateke haiek irailaren erdialderako proposamen batzuk izatea (gure laguntzarekin) eta irala bukaeran herritar guztiei eta bereziki Beko Kaleko bizilagunei aurkezpentsu bat egitea haien iritzia jasotzeko.

Beste gauza batzuren artean adostu da urbanizazioarekin batera ibai-ondoan paseotxo bat egitea eta paseoaren bukaeran parke arrunt bat ez den zerbait egitea (adib. merendero bat?). Edozein kasutan Itteni bukaerako proiektua fasetan banatzea eskatuko zaio etorkizunean udalak proiektua pixkanaka inplementatu ahal izateko.

- **Bidegorriaren obra: egoera**

Alkateak bidegorriaren obraren egoera eta plana azaldu ditu. Momentu honetan uraren tuboak sartzeko ari dira (3m-ko sakoneran dihoaztenak).

Duela egun batzuk bilera izan zuten obraren arduradunekin eta hainbat gauza komentatu ziren:

- Zebra bideak altxatzearena.
- Trituboa sartzearena.
- Nautiko parean telefonia eta elektrizitate kableak soterratzea.
- 13. portalaren zorua pixkat igotzea.
- Nautiko pareko argiteria.

Azken hauek ez daude proiektu barruan baina obrarekin batera egingo dira eta udalak ordainduko.

Bestalde San Juan inguruko zati batean farola zaharrak lekuz aldatzea aurreikusita dago proiektuan. Bidegorrian bertan argiteri berria jarri behar denez diru hori Ibareseko bidegurutzetik herrirako tartean argiteri berria jartzeko erabiltzea proposatuko da. Horren aurrekontua eskatu da.

Azkenik San Juango ermitako gurutze batzuk lekuz aldatu behar dira, momentu honetan enbarazu egiten dutelako. Ondoren esango zaie inguru horretan jartzeko berriro.

#### – **Kurtso bukaerako errepassoa**

Kurtso bukaeran kurtsoan zehar egin diren gauzak eta egin ez direnak zerrendatzea tokatzen da. Hau da gure zerrenda (ez da sakona):

- Egin diren gauzak
  - Bilera monografikoa: Hirigintza kontzeptuak
  - Hitzaldia: 1 sektorea
  - Auzolan taldea
  - Hondakinak batzarra
  - Sare inalanbrikoa (Pantailak, WIFI inalanbrikoa iraletik aurrera publikoa)
  - Ur galerak (batzuk falta dira, lanean)
  - Beko kaleko urbanizazioa (Itten-ekin zeozer martxan)
  - Enirio Aralareko mankomunitaterako ordezkari berria.
- Egin ez diren gauzak
  - Bizikleta elektrikoak (dirulaguntzen zain)
  - Argiteria (dirulaguntzen zain auditoriarako?)
  - Internet azkarra herrian (bidegorrian trituboa)
  - Eskola berriaren kokapena (Hezkuntza sailaren eskutan)
  - Barne kudeaketarako softwarea
  - Larregiko terrenoa (gai konplexua)

#### – **Balorazioa**

Kurtsoaren balorazio azkar bat egin dugu ere bai eta bi kontu aipatu dira:

1. Oihane teknikoak faltan bota dugula azken hilabetetan. Espero dugu laister gurekin egotea lantaldean.
2. Lantaldean parte hartzen duen jende kopurua handitu baino oraingo kideen partehartzea egonkortzea lortu behar dela (ikusi akta honen lehenengo puntua)

– **Pellet erosketa**

A.R. taldekideak Pellet-aren talde erosketa udaltxearen bidez egitea proposatu du berriro. Aurrekoan udaletxeak bakarrik lekua jarriko zuela adostu zen. Oraingoan udaletxearen inplikazio gehiago bukatu da, horretarako deialdia egingo du (adib. Aldizkarian Irailean, eta pantailetan). Edozein kasutan gai honen arduraduna A.R. bera izango da.